# MATERIALES EDUCATIVOS ALBOAN
# ALBOAN HEZKUNTZA MATERIALAK

ALBOAN

castellano euskera



ALBOAN

# MATERIALES EDUCATIVOS ALBOAN
# ALBOAN HEZKUNTZA MATERIALAK

## contenido / edukiak

castellano euskera

### cd



**munduko hirritarrok**


**unidades didácticas**
unitate didaktikoak


**exposiciones**
erakusketak


**material audiovisual**
ikus-entzunezko materiala


### dvd


**derechos y deberes** 11´
eskubideak eta erantzukizunak
**auzolan** 19´
**ahimsa** 18´
**janavak** 27´


## créditos / kredituak


Contenidos / Edukiak: ALBOAN
Diseño y maquetación / Diseinu eta maketazioa: DIBUJATOR





*Todo lo que una persona pueda imaginar, otra podrá hacerlo realidad.*

Julio Verne

Tienes en tus manos la recopilación de muchos sueños, ilusiones y un montón de imaginación que hemos compartido con muchos educadores y educadoras a lo largo de estos años.

La experiencia nos ha mostrado que, en la medida en que nosotros y nosotras imaginábamos, otras personas lo hacían realidad con una diversidad y riqueza increíbles. Además, con estas acciones se ha contribuido a que muchos y muchas educandos y educadoras amplíen no sólo su manera de mirar y relacionarse con el mundo sino también con sus vecinos y vecinas y entre ellos y ellas mismas.



Este recorrido es el que nos ha animado y continúa animándonos a ofertar recursos educativos que nos posibiliten un cambio en nuestra forma de aprender, educar, relacionarnos y en nuestras acciones a favor de otro mundo posible, un mundo más justo y digno para todas las personas.

Por eso, te animamos a que hagas realidad todos tus sueños y también los nuestros, presentes en este CD-DVD a través de una gran diversidad de recursos educativos.



*Uno de los principales objetivos de la educación debe ser ampliar las ventanas por las cuales vemos al mundo.*

Arnold H. Glasow

Los recursos educativos que encontrarás en este CD-DVD son variados y versátiles, tanto en su formato, contenido, como público destinatario. Su objetivo fundamental es ampliar nuestra forma de mirar al mundo y de actuar en él.

Los materiales pueden ser trabajados en el área de la educación formal, no formal e informal y versan sobre una amplia diversidad de temas, tal y como podréis apreciar a continuación y, con más detalle, en el CD-DVD:

**UNIDADES DIDÁCTICAS:**

- Deuda loca
- Ciencia y revolución
- Relaciones humanas, ¿relaciones de poder?
- Con los cinco sentidos
- Escuela de periodistas
- Leyendo entre líneas
- Tierra a la vista

**PROPUESTAS EDUCATIVAS MULTIDISCIPLINARES:**

- **Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo** que aborda las siguientes temáticas:
  - Derechos y deberes. Derechos y responsabilidades
  - Participación social
  - Manejo de conflictos





**MATERIAL AUDIOVISUAL:**

- Video institucional de ALBOAN
- Derechos y deberes. Derechos y responsabilidades
- Auzolan (sobre la participación)
- Ahimsa (sobre el manejo de conflictos)
- Janavak (interculturalidad)

**EXPOSICIONES:**

- Sumérgete en la India con los Adivasis.
- Conoce los problemas del mundo, aprende solidaridad. Pedro Arrupe, testigo de nuestro tiempo.
- Camboya, entre el sufrimiento y la esperanza.
- El voluntariado, una puerta abierta a todas las personas.
- Un encuentro con la India.
- Personas refugiadas y desplazadas. Personas con derechos.

Además de todos estos recursos y posibilidades, desde ALBOAN te ofrecemos:

- nuestro **acompañamiento y asesoría**, siempre que lo necesites.

- la posibilidad de **contar y compartir la experiencia** realizada en nuestra página **web**.

- la posibilidad de desarrollar tu imaginación y de **crear** con nosotros y nosotras **nuevos recursos educativos**.

Y te ofrecemos la posibilidad de **evaluar** las actividades realizadas o los recursos utilizados para que podamos seguir mejorando en nuestra tarea compartida.

Muchas gracias por todo ello.



*Educar a un niño no es hacerle aprender algo que no sabía, sino hacer de él alguien que no existía.*

John Ruskin

A menudo tenemos que responder a las necesidades específicas que el grupo o los y las educandos nos demandan y no tanto las que teníamos establecidas previamente. En el arte de educar es fundamental aprovechar el momento adecuado, por lo que te ofrecemos la posibilidad de búsqueda de actividades que puedan responder a tus necesidades del momento concreto.

Para ello, cuentas con un servicio de búsqueda para hallar y poder responder a las diferentes demandas. Puedes buscar por palabras, asignaturas, edades, temáticas, etc.







## PISTAS PARA EL USO DEL CD

Cuando abras el CD te encontrarás con la selección de los idiomas y luego una pantalla con los materiales así como la posibilidad de búsqueda simple y avanzada.

La **búsqueda simple** no requiere más que colocar la palabra que interesa buscar, apretar el botón de buscar y el rastreador presentará todas las actividades que contengan esa palabra en el título o la descripción. Una vez que tienes el listado de actividades, no tienes más que hacer clic en cada una de las actividades y te aparecerá la ficha de la actividad con sus posibilidades de ir al material en el que se encuentra esa actividad.

Para realizar nuevas búsquedas tienes que apretar el botón de nueva búsqueda. Y repetir lo anteriormente explicado. En cambio, si quieres añadir al listado de actividades que ya tienes otras con un tema similar... escribes de nuevo la palabra que quieres buscar y pulsas buscar y añadirá las actividades nuevas al listado anterior.

La **búsqueda avanzada** permite una búsqueda más selectiva. Primero eliges la edad o ciclo educativo para el cual quieres buscar una actividad. Una vez seleccionada esta primera elección las posteriores van centrando la búsqueda. Si seleccionas primara o 6-12 años, en las áreas curriculares aparecerán solamente las que corresponden a esa edad o ciclo educativo. Y, posteriormente ocurre lo mismo con los temas.

En cualquier caso, y si se quiere hacer una búsqueda más amplia en cualquiera de los apartados aparece la posibilidad de "todos los ciclos, todas las edades" o "todas las áreas". Quizás esto pueda interesar en algunos momentos pero es más recomendable discriminar las actividades para que la búsqueda sea más eficaz.

Al igual que para el caso de la búsqueda simple, para realizar nuevas búsquedas y no sumar las mismas conviene dar al botón de nueva búsqueda siempre.



Aclaramos a continuación algunas de las palabras claves utilizadas para las búsquedas:

**Diversidad**
Diversidad física, de personas, de casas, de opiniones y percepciones.
Diversidad cultural (cuando no hay intercambio entre las culturas).

**Interculturalidad**
Cuando se ofrece información sobre culturas y se pretende "profundizar" en esa reflexión.
Cuando hay intercambio de música.
Diversidad: alfabeto y comidas.

**Migraciones, racismo y prejuicio**
Temas de emigración/inmigración.
Racismo y prejuicios hacia otras personas y culturas.

**Medios de comunicación e internet**
Movimientos artísticos: todas las formas de comunicación artística.
Análisis de los medios de comunicación.
Cuando se da la posibilidad de presentar lo trabajado mediante una noticia de TV.

**Sentimientos y comunicación interpersonal**
Actividades que trabajan los sentimientos: expresión y transmisión de estos por medio de la música.
Desarrollo de la comunicación para crear grupo.
Comunicación no verbal, mímica...

**Consumo responsable y consumismo**
Consumo de materiales y consumo excesivo de TV...

**Desarrollo Humano y Sostenible**
Todo lo que afecta al planeta en el futuro: ecología y cuidado del medio ambiente. Consumismo.

**Desigualdades**
Desigualdad de poder y desigualdad de acceso a recursos.





*Pertsona batek imajina dezakeen oro beste batek gauzatu ahal izango du.*

Jules Verne

Urte hauetan zehar hezitzaile askorekin partekatu ditugun ametsen, ilusioen eta irudimenaren bilduma duzu esku artean.

Esperientziak erakutsi digu guk irudikatu ahala, beste batzuek ezin sinetsizko aniztasunez eta aberastasunez gauzatzen zutela. Gainera, ekintza horiek lagundu dute hezitzaile askok, munduarekiko ikuspegia zabaltzeaz eta harremana estutzeaz gain, ingurukoekiko eta beren buruekiko ikuspegia ere zabaldu eta harremana estutu dezaten.

Ibilbide horrek hezkuntza-baliabide eskaintzeko adorea eman digu. Hezkuntza-baliabide hauek gura ikasteko, hezteko eta erlazionatzeko modua aldatzea eta bestelako mundu bat, zuzenagoa eta guztientzako duina izango dena, lortzea dute helburu.

Horregatik animatu nahi zaitugu zure ametsak eta gureak (CD-DVD honetan agertzen direnak) gauzatzera, hainbat hezkuntza-baliabideren bidez.





*Hezkuntzaren helburu nagusietako bat da mundua ikusteko aukera ematen diguten leihoak hedatzea.*

Arnold H. Glasow

CD-DVD honetan aurkituko dituzun hezkuntza-baliabideak ugariak eta erabilera askokoak dira, formatuari, edukiari eta publiko hartzaileari dagokionez. Bere funtsezko helburua mundua begiratzeko eta harengan eragiteko dugun modua aldatzea da.

Hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean landu daitezke material horiek, eta, CD-DVDan xehetasunez ikusi ahal izango duzuen bezala, gai askoren ingurukoak dira:

**UNITATE DIDAKTIKOAK:**

- Zor zoroa
- Zientzia eta (err)eboluzioa
- Giza harremanak, botere-harremanak?
- Zentzumenak irakasle
- Lerro artean irakurtzen
- Lurra begi-bistan

**DIZIPLINA ANITZEKO HEZKUNTZA-PROPOSAMENAK:**

**-Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonista gara.**

Gai hauek lantzen ditu:

- Eskubideak eta betebeharrak. Eskubideak eta erantzukizunak
- Gizartean parte hartzea
- Gatazkak konpontzea





**IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA:**

- ALBOANen bideo instituzionala
- Eskubideak eta betebeharrak. Eskubideak eta erantzukizunak
- Auzolan (parte-hartzeari buruz)
- Ahimsa (gatazkak bieratzeari buruz)
- Janavak (kultura-artekotasuna)

**ERAKUSKETAK:**

- Barneratu Indian adivasiekin
- Ezagutu munduko arazoak, ikasi elkartasuna zer den. Pedro Arrupe, gure munduaren lekukoa.
- Kanbodia, sufrimenduaren eta itxaropenaren artean
- Borondatezko lana, pertsona guztiei zabaltzen zaien atea.
- Indiarekin aurrez aurre.
- Errefuxiatu eta desplazatuak ere eskubideen jabe.

Baliabide eta aukera horiez guztiez gain, ALBOANen eskaintzen dizugu:

- gure **laguntza eta aholkularitza**, behar duzun guztietan.

- gure **web** orrian zure **esperientzia kontatzeko eta partekatzeko** aukera.

- zure irudimena garatzeko eta gurekin **hezkuntza-baliabide berriak sortzeko** aukera.

Eta aukera ematen dizugu egindako jarduerak edo erabilitako baliabideak **balioesteko**, elkarrekin egiten ari garen lana hobetzen jarraitzeko.

Eskerrik asko guztiarengatik.



*Haur bat heztea ez da ez zekien zerbait irakastea,*
*ez zen hura izaten laguntzea baizik.*

John Ruskin

Sarritan, taldeak edo ikasleek eskatutako behar zehatzei erantzun behar diegu, eta ez aurrez ezarrita geneuzkanei. Hezkuntzaren artean oinarrizkoa da une egokiaz baliatzen jakitea; horregatik, une jakin batean dituzun beharrei erantzun diezaieketen jarduerak bilatzen laguntzen dizugu.

Horretarako, bilaketa-zerbitzu bat duzu, eskaera bakoitza bilatzeko eta haietako bakoitzari erantzun ahal izateko.
Hitzen, irakasgaien, adinaren, gaien, eta abarren arabera egin daiteke bilaketa.







## CDA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

CDa zabaltzen duzunean, hizkuntza hautatzeko aukera izango duzu aurrena, eta gero materialetara iristeko aukera eta bilaketa arrunta eta aurreratua egiteko aukera dituen pantaila bat.

**Bilaketa sinplea** egiteko, nahikoa da bilatu nahi duzun hitza adieraztea eta bilatzeko botoia sakatzea, hitz hori tituluan nahiz deskribapenean duten jarduera guztiak itzuliko dizkizu bilatzaileak. Jarduera-zerrenda aurrean duzula, horietako bakoitzean klik egitea besterik ez duzu jardueraren fitxa irekitzeko. Horretatik, nahi baduzu, jarduerari dagokion unitate didaktikora nahiz materialera joan zintezke.

Bilaketa berriak egiteko "bilaketa berria" botoia sakatu behar duzu, eta aurreko urratsak errepikatu. Baina dagoeneko duzun jarduera-zerrendari antzeko gaia duten beste batzuk gehitu nahi badiozu, zuzenean idatzi laukian bilatu nahi duzun hitz berria eta sakatu "bilaketa": emaitza berriak zaharrei gehituko zaizkie.

**Bilaketa azkarra** finago bilatzea ahalbidetzen digu. Aurrena, jarduera zein adini edo hezkuntza-ziklori dagokion adierazi behar duzu. Lehen kategoria hautatu ondoren, hurrengoek gero eta finago mugatzen dute bilaketa. "Lehen hezkuntza" edo "6-12 urte" hautatzen baduzu, curriculum-arloetan adin edo hezkuntza-ziklo horri dagozkionak baino ez dira agertuko. Beste hainbeste gertatzen da gero gaien kasuan.

Nolanahi ere, edozein kategoriatan (hezkuntza-zikloa, adina, curriculum-arloa...) bilatu nahi bada, "ziklo-adin guztiak" edo "arlo guztiak" hautatzeko aukera ere badago. Agian hori beste uneren batean izango da interesgarria, baina, oraingoz, interesgarriagoa da jarduerak ondo bereiztea, bilaketa eraginkorragoa izan dadin.

Bilaketa arruntaren kasuan bezalaxe, bilaketa berriak egin eta dagoeneko badituzun emaitzak ez gordetzeko, komeni da beti sakatzea "bilaketa berria" botoia.





Jarraian, bilaketetan erabiltzen diren zenbait hitz gako argituko ditugu:

**Aniztasuna**
Aniztasun fisikoa, pertsonena, etxeena.
Kultura-aniztasuna (beren artean trukerik ez dagoenean).
Iritzi- eta pertzepzio-aniztasuna.

**Kultura-artekotasuna**
Kulturei buruzko informazioa ematen denean eta gogoeta horretan "sakondu" nahi denean.
Truke bat dagoenean: musika.
Aniztasuna: alfabetoa eta elikagaiak.

**Migrazioak, arrazakeria eta aurreiritziak**
Emigrazio- / Immigrazio-gaiak.
Beste pertsona eta kultura batzuekiko arrazakeria eta aurreiritziak.

**Komunikabideak eta Internet**
Mugimendu artistikoak: komunikazio artistikoaren aldaera guztiak.
Komunikabideen azterketa.
Landutakoa TBko albiste baten bidez aurkezteko aukera dagoenean.

**Pertsonen arteko sentimenduak eta komunikazioa**
Sentimenduak lantzeko jarduerak: sentimenduen adierazpena, musika bidezko transmisioa.
Taldea sortzeko komunikazioaren garapena.
Komunikazio ez-ahozkoa, mimika...

**Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa**
Materialen kontsumoa eta telebistaren eta abarren gehiegizko kontsumoa.

**Giza Garapena eta Garapen Jasangarria**
Etorkizunean planetari eragingo dion guztia: ekologia eta ingurumenaren zaintza. Kontsumismoa.

**Desberdintasunak**
Botere-desberdintasuna eta baliabideak eskuratzeko desberdintasuna.

ALBOAN

www.alboan.org

**Pamplona-Iruñea**
Avenida Barañain, 2 - 31011 Pamplona
Tel.: +34 948 231 302 Fax: +34 948 264 308
E-mail:alboanna@alboan.org

**Bilbao**
Padre Lojendio, 2 - 48008 Bilbao
Tel.:+34 944 151 135 Fax: +34 944 161 938
E-mail:alboanbi@alboan.org

**Donostia-San Sebastián**
C/ Ronda, 7, 4º I - 20001 San Sebastián
Tel.: +34 943 275 173 Fax: +34 943 320 267
E-mail: alboangi@alboan.org

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social